



Etorkizun zehatzik gabeko bikote harremanak. - Preso batek eta bere bikoteak bisita duten bakoitzean bizitzen dituzten egoerak azaltzen ditu Xabier Mendiguren 'Amodioaren ziega' antzezlanak. Ostiralean Lasarte-Oriako Manuel Lekuonan istorio horren moldaketa aurkeztu zuen Lauka teatroak taldeak. Emanaldira hurbildu ziren herritarrek Aitor eta Mirenen amodio istorio hunkigarriaren bitartez, kartzeletan eman ohi diren harremanen berri izan zuten. Izan ere, etorkizun zehatzik izan gabe, bikote protagonistaren sentimenduak, hala nola, gorroto, amodio edo beldur eta ametsak agerian geratzen baitira. Hori guztia, ziegako lau pareten artean. Antzezlanean bi pertsonaia nagusi izan arren, oholtzan lau aktore ikusi ahal ziren, egoera horretan egon daitezkeen bikote-klasea edo moten erakusle. Ikusleek adi jarraitu zuten istorioa amaiera arte eta ederki eskertu zuten aktoreen lana txalo zaparrada batekin. Antzezlanak Kukuka Antzerki taldeak Udalarekin batera, antzerki amateur sustatzeko ekimenaren baitako ekintza dugu.

2 KULTURA Lasarte-Oriako argazki zaharren diaporama musikatua

'Gogoratzen duguna gara' diaporama emanaldi berezia izango da larunbatean Manuel Lekuona kultur etxean. Julian Sagardiak egindako argazki aukeraketari, Zero Sette akordeoi orkestrak musika jarriko dio zuzenean. Garai bateko Lasarte-Oria gogora ekartzeko aukera ezin hobea izango da.

2 ELKARTASUNA Musika elkartasun bidea

Andatzazpi elizbarrutiko misio taldearen eskutik, elkartasun kontzertuaz gozatu ahal izan zen ostiralean Ama Brigitarren komentuko kaperan. Honetan Neskur Pagola eta Rosa Ormazabal txalapartariak, Xumela korua, Afrikako ahizpa Brigitek eta Semblante Rociero koruak parte hartu zuten. Bildutako dirua Ben Younech proiekturako bideratuko du misio taldeak.



3 GIZARTEA 234 familiei janaria banatu zaie

Lasarte-Oriako Udalaren eta Gurutze Gorriaren ekimenez, egoera ekonomiko larrian dauden 234 familiei janaria banatu zaie. Babarrunak, oliba-olioa, arrosa, esnea edo mota guztietako kontserbak izan dira familiei emandako produktuak. Guztira 7.189 kilo janari. 2016 urteko otsailean beste banaketa bat egitea aurreikusten dute sustatzaileek.

EGUZKITAKO
BETAURREKOAK
deskontua
30%
MODELO BERRIAK 2016

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

RALPH RALPH LAUREN CLOTHING OAKLEY
Ray-Ban arnette
eta askoz gehiago...

Bilduma berriak
marka guztietan
**Gabon hauetarako
OPARI EZIN HOBEA**

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

KULTURA

Lasarte-Oriaren atzera begirakoa

Zero Sette akordeoi orkestra eta Julian Sagardiaren eskutik, diaporama musikatua izango da

'Gogoratzen duguna gara' diaporama berezia antolatu du Zero Sette akordeoi orkestrak Julian Sagardia herritarra- ren laguntzaz. Larunbatean, 18:30ean, Manuel Lekuona kultur etxera hurbiltzen diren herritarrek herriko argazki zahar eta doinu ezagunez gozatu ahalko dute.

Zero Sette akordeoi orkestrak eskusoinuak eskaini ditzakeen aldaera ezberdinak erakutsi ditu azken urteetan. San Pedrotako Jai banda izan da horietako bat. Oraingoan beste ekimen bat aurkeztu du, 'Gogoratzen duguna gara' diaporama.

Xabier Gonzalez orkestra- ko kideak azaldu digunez, duela bi urte hasi zen proiektu hau. "Diaporama musikatu bat egitearen ideia sortu eta Julian Sagardiarengana jo genuen, herriko argazki bilduma handia duela bagenekien eta".

Julianekin hitz egin eta hau prest agertu zen diaporama egitera, "hark aukeratu ditu argazki guztiak eta pres- tatu du diaporama osoa". Lan


hori guztia dela eta, Zero Sette akordeoi orkestrak eske- rrak eman nahi dizkio Juliani.

Herriko argazkiak

Izan ere, Gonzalezek azaldu aipatu duenez, 300 argazkiko aukeraketa da 'Gogoratzen duguna gara' emanaldian ikusi ahalko dena.

Honetan denetarik izango da, Lasarte-Oriako pertsonaia garrantzitsuak, herriko ikuspe- giak, kaleak, etxeak, herriko dendak, baserriak, jai erlijio- soak, folklorea, Sorgin dantza, aerodromoa, golfa, Hipodro- moa, auto zirkuia eta gaur egungo irudi batzuk ere ikus- gai izango dira larunbatean, 18:30ean, Manuel Lekuonako aretoan.

Irudi horiei laguntzeko Zero Sette orkestrak zuzenean



Lasarte-Oriako irudi zaharrez gozatzeko aukera izango da diaporama musikatu honetan.

hainbat doinu eskainiko ditu. Xabier Gonzalezek aurreratu digunez, kantu ezagunak eta modernoak dira eta batzuk Lasarte-Oriarekin lotuak, hala nola, Sorgin dantza edo Lasarte-Oriako ereserkia.

Emanaldi berezi hau Lasarte-Oriako herritarrei

zuzendua dagoela azpimarra- tu du, "izenburuak dioen bezala, gure herria zer zen gogoratzeko balioko du".

Sarrera

Aipatu legez, larunbatean 18:30tik aurrera eskainiko da 'Gogoratzen duguna gara'

diaporama musikatua Manuel Lekuona kultur etxeko areto nagusian.

Doako emanaldia da, baina antolatzaileek jakitera eman dutenez sarrera behar- ko da. Hau Manuel Lekuona- ko leihatilan eskuratu ahalko da gaurtik aurrera.

Musika emanaldia elkartasunaren alde

Ostiralean, Ben Younech (Tanger-Ceuta) proiektuaren aldeko elkartasun kontzertua izan zen Ama Brigitarren komentuan.

Neskur Pagola eta Rosa Ormazabalek jotako txalapar- taren erritmora hasi zen em- analdia.

Ostean, Andatzazpi eliz- barrutiko misio taldeak em- analdian bildutako diruaren bitartez, Gibraltarko itsasarte igaro nahi duten etorkin eta errefuxiatuen alde lan egiten duen proiektua babestuko zela azaldu zuten. Era berean, kontzertuaren ideia nondik sortu zen ere aipatu zuten.



Xumela korua eta Semblante Rociero taldeek haien elkartasuna erakutsi zuten hainbat doinu eskainiz. Ikusleek ongi eskertu zuten jarduna.

Musika

Azalpenen ostean, musikaren txanda izan zen.


Lehenik, Xumela koruak 'Gernikako arbolari' edo

'Atzo ttuntun' doinuak eskai- ni zituen 'Txapas'-en zuzen- daritzapean.

Jarraian, Brigitarren komentuko Ahizpa afrikarren

ahotsak entzun ahal izan ziren. Haien herrialdeko abestiak kantatu eta dantzatu zituzten bildu ziren herrita- rren gozamenerako.

Azkenik, Semblante Rociero koruaren txanda izan zen eta Rocioko Ama Birjina- ren ohorez hiru abesti eskaini zituzten.

Diruz laguntzen duten erakundeak**Babeslea**

LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea**Argitaratzailea:**

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri**Erredakzioa:**

Nerea Eizagirre, Martin Vicioso,
Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

JANARI BILKETA



Oinarrizko elikagaiak eta kontserbak bildu dituzte, 234 familien artean banatu ahal izateko.

Janari banaketa arazo ekonomikoak dituzten familiei

Udalak eta Gurutze Gorriak bultzatu dute ekimena

Egoera ekonomiko larrian dauden 234 familien artean 7.189 kilo janari banatu dituzte. Batez ere, kontserbak eta oinarrizko elikagaiak dira lagindutakoak. 2016ko otsailean errepikatuko da ekimena. Interesatuak Udaletxeko erregistro orokorrean eska dezakete eskuorria.

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Udala eta Gurutxe gorriaren ekimenez, janari banaketa berezia egin da herrian.

Europako funtsak kudeatu du elikagaien bilketa. Bi urteko beherako haurrentzako janaria jaso dute, batetik. Esaterako, umeen zerealak, esne-hautsa eta fruta nahasketak. Halaber, adin guztietako pertsonentzako elikagaiak ere banatu dituzte. Babarrunak, oliba-olioa,

arroza, esnea eta mota guztietako kontserbak, besteak beste.

Adibidea

Zer nolako laguntza jaso duten irudikatzen, hona hemen 234 familietako bati emandakoa, honek lau kide ditu: 12 arroz pakete, 8 garbantzu pakete, 8 babarrun pakete, 40 litro esne, 12 pasta pakete, 16 gaileta pakete, 4 leka lata, 8 litro oliba-olio, 32 atun lata, kontserbazko frutadun 12 lata

eta barazki kremadun 4 poto.

Irizpideak

Lasarte-Oriako Udaleko gizarte langileek hautatu dituzte familia onuradunak, alde aurretik ezarritako irizpideei jarraituz.

Batetik, Udal tasen eta prezio publikoen salbuespen eta hobarien zerrenda barruan egon behar zuten; eta, bestetik, aldeko gizarte txostena eduki.

2016ko otsailean egingo dute hurrengo banaketa. Eskaera egin nahi duenak eskuorria eska dezake udaletxeko erregistro orokorrean.

Irizpideen inguruko zalantzak ere bertan argituko dituzte.

Gabonetako doinuak kultur etxean

Eguberriei hasiera emango diote Udal Musika Eskolako ikasleek urteroko Gabonetako Kontzertuarekin. Asteazkenean Manuel Lekuona kultur etxean izango da ikuskizuna, arratsaldeko 19:00tan.

Kontzertuaren oinarria gabonetako euskal kanta klasikoaren moldaketek osatuko dute. Esaterako, 'Gabeko Izar', 'Hator, Hator', 'Gabon Gauean' eta 'Elurra Teilatuan'.

Gitarra, pianoa, zeharkako flauta, biolina, tronpeta eta ahotsak uzartuko dituzte Udal Musika Eskolako ikasleek.

Eguberrietako kanta unibertsalak ere interpretatuko dituzte. 'White Christmas', 'Stille Nacht' eta 'Santa Claus



Udal Musika Eskolako ikasleen eskutik dator Gabonetako kontzertua, urtero legez

Is Coming To Town', besteak beste.

Bach, Beatles, The Police...

Abesti klasiko ezagunekin ere gozatzeko parada izango dute bertaratutakoek. The Beatles-en 'Blackbird', The

Police-n 'Every Breath You Take', John Lennon-en 'Imagine' eta Bach-en 'Aria Suit' entzun ahal izango dira, adibidez.

Asteazken arratserako, plan bikaina Udal Musika eskolak eskaintzen duena.

TRAFIKOIA

Trafiko seinaleen hornitzea eta Donejakue bideko marka berriak

Lasarte-Oriak Udalak jakitera eman duenez, Señales Girod SL enpresa arduratuko da Udal Brigadaren seinaleak berrornitzeaz. 14.973 euro bideratuko ditu horretara eta etorkizunean sortuko diren beharrak asetzeko erabiliko dira.

Bestalde, Lasarte-Oriako Donejakue bidea seinalatuko dela ere aditzera eman du. Zehazki Zabaleta eta Zubieta arteko eremua markatuko dute, Saiatz Bidearen barneko barrutia, alegia. Druck Servicios Gráficos SLU enpresak egingo du obra, 1.476 euroko aurrekontuarekin.

IRAKURLE TXOKOA

Literatura galegoari tartea

Bihar, arratsaldeko 18:30etik aurrera, Irakurle Txokoko lagunek hitzordu berria dute literaturarekin. Oraingoan, Iolanda Zuñigaren 'Post-It bizitzak' liburua aztertuko dute.

Era honetara, Estatuko beste hizkuntza batetako literatura lana izango dute aztergai. Izan ere, Zuñigak galegoz idazten baitu. Alabaina, Txokoko lagunek Iñigo Roquek euskarara itzultitako bertsioa landuko dute.

Liburu honetan 46 istoriotxo aurkezten dira eta garraztasuna, amorruta, ironia eta umore beltzez betetako istorioak dira.

AURKEZPENA

Iñaki Petxarroman herritarrak 'Kearen fiordoa' eleberria kaleratu du

Bere lehen eleberria 'Kearen fiordoa' aurkeztu zuen Iñaki Petxarroman herritarrak ostiralean Donostiako alde zaharreko Elkar dendan.

Berriko kazetariak Islandian hil zituzten euskal baleazaleen gertakari historikoa fikzionatu du liburuan. Petxarromanek aurkezpenean jakitera eman zuenez, gertakari honi buruz gutxi dago jaso eta hau da euskaraz idazten den lehen errelatoa.

1615ean, Donostiatik Islandiara bidaiatu ziren arrantzaleen istorioa kontatzen du. Ipar Mendebaldeko Fiordoetako magistratuarekin baimen idatzia zuten, baina Danimarkako erregeak moztu egin nahi du kanpoko baleazaleen jardun eta guttiz debekatzen du edozein arrantza mota uhartean. Gainera, bizkaitarren gaineko heriotza zigorra ere ezartzen du.

'Ikastolak 2050' liburuaren aurkezpena

Xumela Koruaren 10. urteurrena dela eta, hainbat ekitaldi burutzen ari da korua hilabete hauetan.

Oraingoan, 'Ikastolak 2050' liburu aurkezpena antolatu du. Hitzordua gaur da, arratsaldeko 18:00etan, Landaberri DBHko Musika gelan.

Aurkezpen berezia da izan ere, koruko zuzendari den Josu Txapartegi "Txapas"-ek idatzi baitu liburua eta berriki, kalera atera du, EREIN argitaletxeak.

Hezkuntza eta etorkizuna

Txapas, koruko zuzendaria

izateaz gain irakaslea ere bada eta jubilatuta egon arren ez dago erretiratuta. Zarauzko Salvatore Mitxelena Ikastolan eta herrigintzako ekimen ugarran ari baita lan eta lan.

'Ikastolak 2050' liburuarekin iragana eta oraina oinarri hartuz etorkizunera jartzen du begirada.


Ekitaldi honetara Lasarte-Oriako ikastetxeetako irakasle, ikasle, gazte zein gurusoak daude gonbidatuak bereziki, eta orohar hezkuntzarekin interesa duen edonor.

Miren Amuriza

Bestalde, abenduaren 20ean ere, 'Kapulana bat zintzilik' emanaldia antolatu du koruak Ttakun K.E.-ren laguntzaz.

Miren Amuriza izango da bertsoetan eta Mozanbikera egindako bidaiaren inguruan kontu-kontari, arratsaldeko 19:00etatik aurrera Abend Kafe-antokian.

Sarrerak 5 euro balio ditu eta asteazkenetik aurrera eskuragarri izango dira Abend eta Jalgi tabernatan.



Jalgi Kafe-Antzokia Urriaren 1etik berriro ere martxan

Orotariko pintxo, edari eta kultur ekitaldien topagunea

Kudeatzailea eta dekorazioa aldatu ostean, martxan da berriro ere Jalgi Kafe-Antzokia

Bezeroek eskatu gura dituzten jaki eta edariez gain, esku artean eduki ditzazketen proiektu kulturalak entzuteko irrikitan daude Jalgi Kafe-Antzokiko langileak. "Herritarrek ateak zabalik dituzte guregana etorri eta buruan dutena proposatzeko; ideia berriak martxan jartzeko gogotsu gaude", nabarmentzen dute. Kudeatzailez eta itxuraz aldatu du lokalak, erreformak egin eta kolore desberdinekin margotu dute, traineru baten itxura emanez. Urriaren 1etik ari dira arraunean egunero-egunero, herritarrei ahalik eta zerbitzu onena eskaintzeko asmoz.

TXINTXARRI

Urriaren 1az geroztik, eskutik doaz 'berria' hitza eta Jalgi Kafe-Antzokia. Kokalekua ez da aldatu, hori ez da berritasunetako bat, Geltoki Kaleko 4. zenbakian baitago oraindik, Okendo plazatik gertu, baina berria da kudeatzailea, berriak dekorazioa eta itxura, berria pintxo eta edarien eskaintza, berriak zerbitzari gehienak eta, batez ere, berriak langileak esku artean dituzten ideia eta egitasmoak.

Pintxo, hozkailu eta garagardoa zerbitzatzeko kañero artean eszenatoki txiki bat, bozgorailu ugari eta proiektore handi bat topatu daitezke Jalgi Kafe-Antzokian. Lokalak dituen baliabideak "ahalik eta hobekien" aprobetxatze alde-ari ari dira burua estutzen Jalgiko langileak.

Inaugurazioan Patxi Etxeberria eta Unai Muñoz bertso-lariak eta Xumela abesbatza aritu ziren, Djak larunbat gau batzuetan, Lasarte-Oria Bai! Kros herrikoiak utzitako irudiak proiektorean erakutsi zituzten... Martxan jarri zirenetik ez dira geratu eta horrela jarraituko dute; gogoak eta ideiak ez zaizkie falta. Hilero dokumentalak proiektatzeko asmoa dute, zozketak egiteko, etab.

Egitasmo zaparrada horren baitan herritarrei otu ahal zaizkienak ere esku-zabalik hartuko dituztela azpimarratu dute: "Herritarrek ateak zabalik dituzte guregana etorri eta buruan dutena proposatzeko;

ideia berriak martxan jartzeko gogotsu gaude".

Dagoeneko beste hainbat ere zehaztuta dituzte. Esaterako, larunbatean egingo den 'Lasarte-Oria Kalera Fest' izeneko jaialdiko taberna parte-hartzaileetako bat izango da: 'Ever Level' taldeak kontzertua eskainiko du 23:00etan, eta Djek gaua girotuko dute horren ostean.

Itxura aldaketa

Baten batek lehenengo aldiz zapalduko du Jalgi larunbat honetan, eta sorpresa eraman- go du, itxuraldatutako kafe-antzoki batekin egingo baitu topo. Hainbat berrizelan burutu ditu kudeatzaile berriak. Lokala goitik behera margotu du eta argiteria aldatu, besteak beste.

Azkeneko hori izan da dagoeneko Jalgin egon diren bezeroek gehien nabarmendu duten aldaketetako bat. "Lokala askoz ere argitsuagoa dela aipatu digute bezero askok", nabarmentzen dute Jalgiko langileak.

Kafea ere izan dute hizpide: "Oso kafe goxoa prestatzen dugula ere esan digute".

Pintxo eta edari sorta zabala

Kafe horietako bat goizean goiz hutsik edan beharrean kruasan, madalena edota ogi txigortu berriarekin osatu daiteke, eta baita laranja zuku naturalarekin ere. 8:30ean irekitzen ditu Jalgik ateak goizetan, arestian aipatutako gosari aukera horiek eskainiz.

Hamaiketako egitera gerturatzen denak hainbat pintxo



Bezeroek eskatutako jaki eta edariak lan-taldearen irribarre batez lagunduta joan ohi dira.



Jende ugari bildu ohi da Jalgi Kafe-Antzokian, ostegunetako pintxo-pote arratsaldeetan esaterako.

edukiko ditu aukeran: Patata-tortilla arrunta edo barrubetea (txakaduna, york urdaiazpiko eta gaztaduna, etab.), hesteki ogitartekoak (txorizoa, urdaiazpikoa, saltxitxoia...), olagarroa, azeitunak... Tortillak eta antzekoak enkargu bidez ere eskatu daitezke, 607 45 10 01 zenbakira hots eginez gero.

Jaki horiek "ardo onarekin" dastatu daitezke. "Kalitate oso oneko ardo ugari ditugu, eskaintza zabala da oso", azpimarratzen dute kafe-antzokiko langileak.

Gauetan 22:00etan ixten ditu ateak Jalgik, larunbatetan ezik, parranda 4:30ak arte luzatu daiteke egun horretan,

zerbitzariak tentuz prestatutako edari eta koktelak dastatu bitartean.

Famatu bilakatu den pintxo-potea ere egiten du Jalgi Kafe-Antzokiak, ostegunetan, 19:00etatik aurrera. Aldatuz doa egun horretarako bereziki prestatzen duten pintxo-sorta: xolomoa pikillo saltsan, hirugihar tosta, albondigak, txanpinoiak saltsan...

Freskotasuna

Aipatutako horiek denak zerbitzatu eta bezeroen eskaria asetzeko, zazpi zerbitzari eta sukaldari bat aritzen dira lanean astean zehar.

Lan-talde gaztea da oso; "freskotasun ukitu bat" ema-

ten dio horrek Jalgiri, langileen beraien aburuz.

Freskotasun hori ere nabaritzen da ideia eta proiektu berriak gauzatzerakoan. Kulturari lotutakoak bakarrik ez, gastronomiari lotutakoak ere badituzte esku artean: 'Koktelaria' moduko bat sortu nahi dutela aipatzen dute; asteburuetan ere 'pintxo beroak' prestatzen hasteko asmoa badute.

Traineru itxura dauka Jalgi berrituak eta Lasarte-Oria Michelin talde mitikoaren pare bat argazki ikus daitezke bertan. Urriaren 1etik darama arraunean kafe-antzokiak, egunero-egunero, herritarrei ahalik eta zerbitzu onena eskaintzeko asmoz.

Larunbateko 'Lasarte-Oria Kalera Fest' ekitaldian ere hartuko du parte Jalgik; 'Ever Level' taldea eta DJ bat ariko dira 23:00etatik aurrera



Podemos-Ahal dugu hautesle taldeko kideek "txorizo" jana antolatu zuten.



Borja Semper PPko Gipuzkoako zerrendaburua eta Alejandro Saenz herriko zinegotzia bilera ostean.

Ekintza ezberdinak bozkak bilatzeko

Podemos-Ahal dugu eta PPko Gipuzkoako zerrendaburuak herritarrekin bildu ziren

Kongresu eta Senatu eratzeko hauteskunde kanpainak aurrera darrai. Herritik barrena alderdi ezberdinetako kotxeak bozgorailuetatik bozka eske entzun ahal izan ditugu egun hauetan, baina kalean ere ikusi ditugu alderdietako kideak. Ostiralean PP eta Podemos-Ahal duguk herritarren iritzia jakiteko ekintzak egin zituzten Lasarte-Orian.

Txorizo jana antolatu zuten Podemos-Ahal Dugu alderdiko kideek ostiral arratsaldean Okendo plazan.

Nagua Alba kongresurako Gipuzkoako zerrendaburua eta Josexo Arrieta Gipuzkoako senaturako hautagaia bertaratutako lasarteoriatarrekin bildu ziren.

Azaldu zutenek, ekimenarekin 'txorizo' hitzaren zentzu bikoitzarekin jokatu nahi izan dute. Espainian Gobernu horrelako asko egon direla azpimarratu, eta horiek "irenstera" gonbidatu zituzten herritarrek.

Ustelkeriaren aurkako borroka izan da Ahal Dugu alderdiaren oinarria kanpainan.

Hala ere, beste gai batzuk ere azpimarratu zituzten. Hala nola, "gizarte ezberdin-

tasunekin bukatu eta enplegu duina sustatu".

Halaber, informazio gunea ere ipini zuten, herritarrek sortutako zalantzak, kezak eta bestelakoak partekatu eta alderdiko kideek azaldu ahal izateko.

Semper kirol elkarteekin

Bestalde, goizean, PPko Kongresurako zerrendaburua den Borja Semper izan zen herrian.

Alejandro Saenz Lasarte-Oriako PPko zinegotziare-

kin batera herriko kirol elkarteekin bilera izan zuten hauen egoera eta beharrak jakiteko.

Ostean, herriko kaleetatik Osasun zentrora arte paseoa eman eta kafe bat ere hartu zuten.

Egunotan PPko zerrendaburuak "Espainiak funtzionatzearen garrantzia" azpimarratu du. Izan ere, euren ustetan, hori da "Gipuzkoa eta Euskadi" indartsu izateko gakoa.

ERAIKIN BERRIA SALMENTAN, SOILIK

2 ETA 3 LOGELATAKO 14 ETXEBIZITZA. SANTA BARBARA ALDERA BISTA EZIN HOBEAK. ZONA BERDEAZ INGURATUTA.

189.000€

+ BEZ-TIK AURRERA

DONOSTITIK SEI MINUTUTAN!

residencial
zabaleta (berri)
bizigunea

INFORMAZIOA



943 368 942

www.zabaletaberri.es



%80A SALDUTA 1GO FASEAN

Eraiki aurreko merkaturatze sustapena. Informazio hau alda daiteke arrazoi tekniko edo komertzialengatik. Interesdunen eskura dago gure bulegoetan iragarki honetan ez dagoen gainerako informazio guztia, 515/89 Errege Dekretuak, apirilaren 21ekoak, eskatzen duena.

Kutxabankekin finantzatuta



PILOTA.-

Axier Arteagak profesional mailara jauzia emango du

Bankoa-DV Torneoko finala jokatuko du abenduaren 23an Zumarragan

Lasarte-Oriak ordezkari izango du senior mailako Bankoa-Diario Vasco txapelketa entzutetsuan. Herriko 19 urteko pilotari Axier Arteagak eta Daniel Murgiondo azpeitiarrak Zumarragako finalerako txartela lortu zuten larunbatean, Andoni Mendiñueta eta Jon Olaizola 22-14 mendean hartuta.

TXINTXARRI

Axier Arteagak abenduaren 23an, asteazkena bikotekako Bankoa Crédit Agricole-EL DIARIO VASCO torneoko finala jokatuko du Urbieta eta Arratibelen aurka Daniel Murgiondo azpeitiarra bikote duela.

Larunbatean, Donostiako Atano III pilotalekuan jokatu zuten finalurrekoa Andoni Mendiñueta eta Joan Olaizolaren aurka eta 22-14 gailendu zen Arteaga-Murgiondo bikotea. Markagailuak erakusten duena baino parekatuagoa izan zen norgehiagoka; majo izerditu behar izan zuen bikote gorriak Zumarragarako txartela poltsikoratzeko.

Berako final-laurdenetan sekulako erakustaldia ematek zetorren aurrelari lasarteoriatarra. Arteagaren joko-mailari Murgiondok era-

kutsitako sendotasuna gehituta, haiek ziren finalerako sailkatzeko favoritoak.

Aurrean izan zuten bikoteak ere txapelketa oso txukuna burutu du ordea, behin eta berriro erakutsiz ez direla garaitzen batere errazak. Horrela gertatu zen larunbatean ere.

Nerbioak hasieran

Urduri kantxaratu ziren larunbatean Arteaga eta Murgiondo eta, ondorioz, ohikoa dena baino zurrunago aritu ziren hasierako tantoetan, atzelari azpeitiarra batez ere. Konturatzerako, 1-5 aurreratu ziren urdinak markagailuan.

Dena dela, segituan eman zioten buelta gorriek egoerari. Arteagak hasi zuen erreakzioa, jarraian egindako bi tantorekin (benetan ederra ezker gantxo egindako bat); beste tanto-sorta bat egin zuten



Nahiz eta finalurrekoan Axier Arteaga aurrelaria ez zen fin ibili, Bankoa-DV txapelketako finalean izango da.

jarraian, lehen aldiz markagailuan aurea hartuz, 6-5.

Neurketak oso orekatu izaten jarraitu zuen 11-10ekora iritsi arte. Mendiñuetak eta Olaizolak zenbait akats egin zituzten jarraian eta egoera hori baliatu zuten gorriek erabakigarria izango zen aldea irekitzeko, 16-10.

Arteaga eta Murgiondo ez ziren aritu beste zenbait neurketatan bezain dirdiratsu, baina hortzak estutzen bada kitela ere erakutsi zuten, eta tantoz tanto sendo lan eginez

Zumarragako finalerako txartela lortu zuten.

Herritar ugari hurbildu zen Donostiara aurrelari lasarteoriatarrari animoak ematera.

Profesionalerara jauzia

Eta ez dira berri onak amaitzen, final hau izan baitaiteke afizionatu mailan jokatzen duen azken partida.

Hainbat komunikabideetan jakitera eman dutenez, txapelketa amaitu ostean, Asegarce enpresaren eskutik profesional mailara egingo du

salto aurrelari lasarteoriatarrak.

Berez, urtariletik aurrera bikotekako promozioko bikotekako txapelketan parte hartuko du. Baina Asegarceko pilotari minduen kopurua kontua izanik, lehenago egin dezake debuta Lasarte-Oriako gazteak, haren aita Juan Mari-uren urratsak jarraituz.

2013an, Asegarce enpresarekin aurrekontratu sinatu zuen Arteagak eta Albisu, Artola eta Olaizola II. arekin batera entrenatu da.

ERRUGBIA.-



Gogotsu jokatu zuten errugbi eskolako gazteek atzo Michelingo kirol gunean izandako Topaketan.

Errugbi eskolen topaketa arrakastatsua

Meleak, plakaketak, lasterketak, entsaioak... errugbi festa izan zen atzo Michelingo kirol gunean. Izan ere, 10 eta 12 urtez azpikoan errugbi eskolak bildu ziren bertan.

Beltzak Ostadar Errugbi eskolako A eta B taldeek, Hernani (A eta B taldeak), Bera Bera, Iruña eta Atletico San

Sebastian izan zituzten aurrez aurre. Ligila sistema erabilita guztiek guztien aurka jokatu zuten. Gaztetxoek haien tre-bezia ederki erakutsi zuten.

Eta partida guztiak amaitzean, noski, hirugarren denboraz ere gozatu zuten.

Elkartasuna

Bestetik, kirol gunean, 'Ami-

gos Solidarios ORG' egitasmo kideak izan ziren kamiseta eta objektu solidarioak saltzen.

Beltzak eskolako kideak Clover SL enpresarekin batera haien elkartasuna adierazi diote egitasmoari eta kamixeta salmentan parte hartzen ari dira. Bildutako dirua Ugandan eskola bat erakitzera bideratuko da.

ARETO-FUTBOLA.-

Eguberrietako I. txapelketari buruzko bilera etzi

Areto-futbola ez da geldituko Gabonetako festetan zehar. Eguberrietako I. txapelketa antolatu du Ostadar SKTk abenduaren 21etik urtarrilaren 5era bitartean. Hiru kategoriatan eman ahal-ko da izena: Eskola Kirola, infantilak eta kadeteak.

Ostadar SKTren areto-futbol alorrek jakinarazi duenez, bilera informatiboa egingo du etzi Michelinen, txapelketan izena emateko interesa duten taldeekin. 19:00etan elkartuko dira.

Gutxienez 7 talde apuntatu ahal-ko dira eta 12 gehienez, antolatzaileek zehaztu dutenez. Talde bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu, Ostadarrek Geltoki kalean duen bulegoan, 18:00etatik 20:00etara bitartean.

ATLETISMOA.-

Lasarte-Oriako I. San Silvestrerako izen-ematea zabalik dagoela gogorarazten dute antolatzaileek

Abenduaren 31n hainbat herritan jokatzen den San Silvestre lasterketa Lasarte-Oriaren ere egingo da, aurreko lehenengoz. Antolatzaileek ireki dute jada proba horretan izena emateko epea.

Interesa dutenek *kirolprobak.com* atarian eman beharko dute izena, abenduaren 27a baino lehen. Lasterkariak 16 urte eduki beharko dituzte gutxienez, eta 5 euro ordaindu. Lasterketa 16:00etan hasiko da; 6,2 kilometroko ibilbidea burutu beharko dute korrikalariak, Okendo plazatik hasita.

Lasterkariarekin batera Ipar Martxa edo Nordic Walking delakoan aritzen den taldetxo bat ere aterako da egun horretan Okendotik. Proba hasi baino ordu erdi lehenago aurkezpen ekitaldi bat prestatu dute antolatzaileek.

Agenda

Asteartea, 18:00etan, Manuel Lekuona haur liburutegia



Ipuinetan barrena bidaiatzen

Pello Añorgaren eskutik, herriko 4 eta 5 urtetako haurrek ipuinetan murgiltzeko aukera izango dute. Hamaika abentura biziko dituzte, pertsonaia et amundu berriak ezagutzeko aukera izango dute ipuinen bitartez. Sarrera doan da. Haurrek bakarrik sartu behar dute eta 18:00etan puntuan hasten da kontaketa antolakuntzak gogoratu bezala.

gai izango da. Urritasuna duten pertsonen nazioarteko egunaren harira.

Lasarte-Oria Kalera Fest

LASARTE-ORIAKO KALEETAN ZEHAH
Larunbata, 11:00etatik aurrera
Lasarte-Oria Kalera Fest jaialdia antolatuta da. Herriko taberna, kaleetan zehar eta Okendo plazan kontzertuak, tailerak eta jolasak antolatuta dira.

Bertsoak

ABENDA KAFE-ANTZOKIA
Igandea, 19:00etan
Miren Amurizak "Kapulana bat zintzilik" emanaldia eskainiko du. Sarrera 5 euro. Asteazkenetik aurrera eskuragarri Jalgi eta Abend kafe-antzokian.

Eguberrietako Haur parkea

MICHELINGO UDAL KIROLGUNEA/BITARTE TENIS PISTA
Abenduaren 20tik 31era
Haurren gozamenerako Eguberrietako Haur parkea izango da. Puzgarriak, bideo jokoak, tailerak... denetarik izango da etxeko txiki eta gazteek ederki gozatzeko. Abenduaren 24 eta 31ean goizez izango da irekia, abenduaren 25ean itxia egongo da. Sarrera helduek 1 euro.

San Tomas eguna

OKENDO PLAZA
Astelehena 21, 17:00etatik aurrera
San Tomas eguneko azoka izango da Okendo plazan. Txistorra eta taloez gain, Ttiriki Ttarraka eskolako lagunak, Xumela korua eta bertsolariak izango dira.

Lasarte-Oria Irakurle Txokoa

MANUEL LEKUONA
Asteartea, 18:30ean
Iolanda Zuñigaren "Post-It bizitzak" liburua aztertuko da.

Musika

MANUEL LEKUONA
Asteazkena, 19:00etan
Udal Musika eskolako ikasle eta irakasleek Gabonetako kontzertua eskainiko dute.

BRIGITARREN KOMENTUA
Larunbata, 20:30ean
Alboka Abesbatzak eguberrietako

abestiez osatutako emanaldia eskainiko du. Sarrera doakoa.

MANUEL LEKUONA
Asteazkena 23, 20:00etan
"Soulshine Voices" taldeak gospel emanaldia eskainiko du. Laukote frantsesak ohiko gospel abestiak eta blues, jazz, funk edo soul kutsua duten doinuak ere eskainiko ditu. Sarrera 5, 50 euro.

Diaporama

MANUEL LEKUONA
Larunbata, 18:30ean
"Gogoratzen duguna gara" argazki bidezko Lasarte-Oriaren atzera begirakoa Julian Sagardiak egina. Honi Zero Sette orkestrak zuzeneko musika jarri-

ko dio. Doako emanaldia. Sarrera Manuel Lekuonako lehiatilan eskuragarri.

Zinea

MANUEL LEKUONA
Ostirala, 22:00etan
Okendo Zinema Taldearen zine forum atalean "Calvary" filma ikusgai izango da. Sarrera 5,50 euro.

Erakusketa

ANTONIO MERCERO GUNEA
Abenduaren 3tik 18ra, 17:30etik 19:30era.
Jalgune elkartearen "Elkar sentitu eta emozioak handitu!" erakusketa ikus-

Herritarren txokoa

Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean abenduaren 28an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Anima zaitetze, odola ordezkazezina da eta odol falta dago!

Maria Auxiliadoraren omenezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren omenezko meza ospatuko da, abenduaren 22an, asteartea, arratsaldeko 17:00etan.

Lasartearra elkarteak loteria

Lasartearra elkarteak jakinarazi du aurtengo gabonetako loteria, 57.898 zenbakia, bazkideen eskura dagoela.

Alboka Abesbatza

Alboka Abesbatza 2015-2016 ikasturtean dituen ekimenei aurre egiteko lanean ari da dagoeneko. Hala ere, 15-55 urte bitarteko herritarrak animatu nahi ditu abesbatzera gerturatu

eta parte hartzera. Astelehen eta ostegun guztietan 20:00etatik 21:30era entsaiatzen du abesbatzak Arantzazuko Amaren Eliza azpiko lokalean, Zumaburun. Informazio gehiago jasotzeko idatzi info@albokaabesbatza.com-era.

Hemeroteka

Duela 1193 ale



Michelingo Kooperatibaren 50. urteurrenaren berri eman genuen 1997ko abenduaren Erreportajearen Patxi Soriarrain, Maria Luisa Yurrita, Pepe Barretxea eta Angel Goenaga kooperatibako langile edo zuzendaritza kontseiluko kide ohiekin hitz egin genuen.

Kooperatibaren lehen pausoak, produktuen jatorria, garai batean langileentzat zegoen etxeetako zerbitzua, kooperatibaren lekualdatzeak, herriko dendariaren iritzi edo diru kontuak izan ziren hizpide.

Bitxikeriren bat ere jakitera eman zuten, hala nola, irabazi asmorik gabeko kooperatiba izateko sortu zela edo behin ardoa pikatu eta etnoloko bati deitu behar izan ziotela zer egin jakiteko. Hori guztiaz gain, gaur ez bezala, igandean lan egiten zutela nabarmentzen da erreportajearen. Goizeko zortzietan lanean hasten ziren, baina lehenago mezetera joaten ziren, "mezara ez joatea bekatau zen" eta.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:
Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.info



Osasun Zentrotik Oekndo plazara egin zen giza katean besteak beste, 'Bizirik eta libre' edo euskal presoen izena zuten karteltxoak ziren kateko begiak lotzen zituzten elementuak.

Giza katea euskal presoen eskubideen alde

Lasarte-Orian eguberrietan egingo diren ekintzen berri ere eman zuen Sarek

Ostegunean, Giza eskubideen egunean, Lasarte-Oriako Sarek Euskal herria osoan egin ziren ekimenekin bat eginez, giza katea osatu zuen Osasun Zentrotik hasi eta herriko kaleetatik barrena.

Euskal presoen eskubideak aldarrikatzeko giza katea egin zen ostegunean. Osasun zentroan hasi eta Okendo plazan amaitu zuen, erdialdean bueltaxka bat eman ostean.

Okendon Giza Eskubideen aldarrikapen unibertsalak jasotzen dituen pasarte batzuk gogora ekarri zituzten, hala nola, nornahik du bakean biltzeko eta elkartzeko eskubidea, gizabanako guztiek dute iritzi eta adierazpen-askatasuna edo ezin daiteke inor torturatu, ezta inori

zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere.

Era honetara, euskal presoen eta bereziki larriki gaixo daudenen eskubideak betetzea eskatu zuten, esklerosi anizkoitza duen Ibon Fernandez Iradi herritarra horien artean. "Hauetako kasu bakoitzean, biziki urgentea da kaleratzea, gaixotasunei aurre egiten lagunduko dien beharrezko tratamenduak jaso ditzaten," adierazi zuten.

Eta salbuespen egoerak dakarren eskubide urraketa salatu zuten, hala nola, pre-

soaren intimitatea babestuz harremanak eta komunikazioa gauzatzea edo euskaraz mintzatu, komunikatu eta ikasteko eskubidea errespetatzea aldarrikatu zituzten.

Ekintzak

Hau guztiaz gain, Eguberrietan herrian eta Euskal Herri mailan egingo diren ekintzetan parte hartzea deitu zituzten herritarrek.

Lasarte-Orian abenduaren 24an arratsaldean Okendon topa egingo dela gogoratu zuten, abenduaren 31ean manifestazioa 19:00etatik aurrera eta urtarrilaren 8an Manuel Lekuonan 'Harresi guztien artetik' emanaldia izango dela.

Ekimen nazionalak ere izango dira Bilbo eta Baionan



Ibon Fernandez Iradi presoaz zorientzeko argazkia atera zuten.

urtarrilaren 9an 17:00etan eta Lasarte-Oriatik autobusak antolatu direla ere jakitera eman zuten. Autobuseko tike-tak eskuragarri daude dagoneko ohiko lekuetan.

Azkenik, Ibon Fernandez Iradiren urtebetetzea abenduaren 8an izan zela eta, talde argazki bat ere atera zuten giza katean parte hartu zuten guztiek.

Herritarren indarra erabakior Kataluniako independentismoan

Larunbatean, Xirimiri elkar-teko lagunek 'Helburua independentzia: zein da bidea?' antolatutako mahai-inguruan, Kataluniako egoera politiko eta soziala ezagutu ahal izan zen zuzenean. Izan ere, Bartzelonako Villafranca del Penedes herriko alderdi ezberdinetako ordezkariak gonbidatu baitzuten herriko elkarteak: CDCko Joan Manel Montfort, ERCko Pere Sabat, CUPeko Llorenç Casanova eta PSCko kide ohi den Xavier Lecegui. Mahai-ingurua gidatzen Kristina Bernal izan zen.

2007. urtetik hona independentismoaren gorakada aztertu zuten eta laurak bat etorri ziren Auzitegi Konstituzionalak Estatut-a atzera botatzea inflexio-puntua izan zela.

Baina argi zuten beste hainbat eragile ere izan direla



Alderdi ezberdinetako lagunen eskutik, Kataluniaren egoera ulertzeko giltzak entzuteko aukera izan zen mahai-inguruan.

independentziaren nahia hainbeste zabaltzeko. Hala nola, krisi ekonomikoa, hitzarmen fiskalaren negoziaketen porrota, Wert legea edo erreforma energetikoaren legea atzera botatzea.

Bide demokratikoa

Gainera, independentismoa-

ren demokratizazioa eman dela ere aipatu zuten. Hau da, independentzia demokraziaren bidetik lortzea da helburua, autodeterminazio eskubidea baitago.

Era berean, independentzia edozein alderdikieretatik kanpo utzi dela ere azpimarratu zuten.

Herritarren garrantzia

Horren harira, herritarrek edo sozietate zibilak eta elkarteek izan duten papera nabarmendu zuten laurak. Izan ere, Kataluniako herritarren %50a independentziaren alde agertu zen erreferendumean. Katalunia Espainiarik gabe hobe egongo litzatekeela eta

Estatu berri bat sortu nahi dute, etorkizunera ilusioz begiratuz.

Eta azpimarratu moduan, sozietate zibilari ezin zaio zilegatasuna kendu, alderdiak berriaz ilegalizatu daitezke.

Independentismoaren garapen honek alderdietan izan duen eragina eta irailaren 27ko hauteskundearen emaitza ere izan ziren hizpide.

Estatuarekin izandako harremanak ikusita independentziaren aldeko alderdi batzuen eta alderdi kideen jarrera aldatu dela argi utzi dute eta PSCren adibidea jarri zuten Xavier Leceguik, non batzuk PSErekin bat egin duten eta independentziaren aldekoek, aldiz, alderdia utzi edo beste alderdietara jo duten.

Azkenik etorkizunera begira eman beharreko urratsi buruz ere eztabaidatu zuten.